



Surfa mundu bitxia da ezagutzen ez duenarentzat. Modako kirola, aberaskume pijoekin, erdarekin, *guai*keriekin lotu izan da. Euskara osasunez olatu artean zer moduz dabilen jakin nahi izan dugu, eta Zarautzera, Sopolara eta Angelura jo dugu.

Haritz Larrañaga (1976) eta Mikel Troitiño (1969) 10-12 urterekin hasi ziren surfean Zarautzen (Gipuzkoa). Orain, Zarauzko Surf Eskolako irakasleak dira. Haurrak zirenean, surf giroan, euskararekiko jarrera nolakoa zen kontatu digute, baita orain hurrekin euskaraz aritzeko egiten duten ahalegina ere.

Bi hitzetan laburtu du Larrañagak haurra zeneko garaian surfean zegoen giroa: «Erdalduna eta diruduna». Orain Karlos Arguiñanoren jatetxea dagoen inguru horretan elkartzen ziren 20-25 lagun surfean egiteko. Bilbotik asteburuetan eta udan etortzen zen familia bat surfzalea zen eta zarauztarrak haiengana hurbildu ziren. Ez zekiten euskaraz eta dirudunak ziren. Koadrilakoek edo ikastolako lagunek euskaraz egiten zuten, baina bilbotarrekin, Madrildik etorritakoekin eta guraso erdalduneko zarauztarrekin gaztelaniaz. Dirudienez nahikoa lan bazuten aurreiritziz jositako kirola praktikatzeko, surfa kirola baino gehiago denbora alferrik galtzeko modua zela esaten baitzen; kanpoan olatuei begira egon, barruan arraunean egin eta noizean behin olaturen bat hartu. Etxetik hondartzara ez ziren jaisten orain bezala, neoprenotan eta hanka-hutsik, lotsaz-edo hondartzan aldatzen zuten arropa. Euskara? Bigarren mailako kontua zen.

Hamar bat urte geroago etorri zen aldaketa, Larrañagaren eta Troitiñorengana bederen. Kontzientzia piztu eta euskarari lotu zitzaizkion gehiago. Bidelagun izan zituzten, esate baterako, Josu Urteaga eta Joseba Iriondo ezaguna.

Gaztelaniaren tokiaz galdetzeaz bat, ingelesak eta frantsesak duten eraginaz galdetu diegu. Nazioartean eragin han-

diena duten hizkuntzak aipatzerakoan sailkapena honela egin dute: ingelesa, frantsesa, gaztelania eta portugesa. Ingelesak du lehentasuna eta eguneroko surf hiztegian jada sartuta daude ingelesezko hitzak. Euskarazkoekin ordezkatzea ez omen da erraza. Frantsesak ere indar handia du, olatu eder asko munduko hainbat uhartetan daudelako eta uharte horietako batzuk Frantziaren koloniak dira.

Hitzak sortu eta erabili, lehenak ezinbestez bigarrena behar duela dio Larrañagak: «Baserriaren edozein zati edo elementu izendatzeko hitzak baditugu euskaraz, baina surfaz hitz egiteko...». Ohikoena hitzak ingelesetik eta gaztelanitik itzultzea da, baina zalantza asko izaten dute. Esate baterako, ohol eta guzti aparraren azpitik pasatzea gaztelaniaz *hacer el pato* edo *hacer la cuchara* esaten da. *Abatearena egin* formula pentsatu zuten baina, batetik, kopia biribila da eta bestetik, ahoskatzeko aldrebesa.

Larrañagak eta Troitiñok surf eskolan *azpiratzea* erabiltzen dute. Beti sortze lanean aritu beharrean arraun-munduari ere begiratzen diote, batez ere olatu guneei eta formei buruzko hiztegia aberatsa delako. Bestalde, alboko herrietan erabiltzen diren hitzei erreparatzen diete. Zarautzen ondarrutarrei, oriotarrei edo Adunakoei entzundako formak paperean idazten dituzte. Paperean geratzen dira orde, erabiltzen ez badira. Eskolara datozen haur eta gazteekin egiten dute ahalegina euskaraz egin dezaten, eta horrela, surferko hizkera gara dadin.

16 urtera arte lortzen omen dute haur eta gazteek euskaraz egitea, batzuetan ahalegin berezia eginez. Izan ere, taldean batzuetan izaten da euskaraz ez dakien bakar hori; horrelakoetan bi irakasle aritzen dira bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Gero eta gehiago euskaraz eta ingelesez egiten dute, udan kanpotarrak baitatoz. 16 urtera arte esan dugu, adin horretatik aurrera argota erabili nahi dute, hitz *guai*ak, eta euskarari eusteko komeriak.

## Kontzientzia piztu bidaiatuz

Olatuak, olatuak eta olatuak. Horren bila joaten dira surflariak munduko beste puntako uharte galdutara ere. Hasierrako urteetan surflariak ez omen du galdetzen nor bizi den uharte horretan, ez zein hizkuntzatan hitz egiten duen, ez zer moduz bizi den. Geroago ordea, jakin-mina sortu eta, hara, askotan uharteak frantziarrek edo britainiarrek kolonizatutakoak dira, ingelesa eta frantsesa hizkuntza ofizialak dituztenak, eta bertako hizkuntzak, nortasuna zapalduta. Orduan akordatzen da «turista-surfista» berak ere baduela hizkuntza eta uharte galdu horietako batean iaz ezagututako surflari alemaniarrek «egunon» eta «eskerrik asko» esaten dionean ilusio handia egiten diola.

Ereduen beharra aipatu du Troitiñok: «Aritz Aranburu bat izatea, euskaraz ariko diren surf-eskolak, txapelketak, denak... eta Frantzia eta Espainiari begira egon beharrean, euskarari eta ingelesari heltzea».

Surflari zarautzarrek itxaropena dute masifikazioak bereziak garen kontzientzia piztuko duela. Troitiñok hala dio: «Orain, euskaldunok bagara nahikoa *souvenir* surf-munduan, baina masifikazioari esker kontura gaitzke gutxi garelara eta besteengandik bereizten garelara».

ONINTZA IRURETA, *Argia* aldizkaria



### ULERMENA LANTZEN

- 1 Non eta nolatan hasi ziren surfean egiten?
- 2 Zer uste zen hasiera hartan surfari buruz?
- 3 Zer dela eta dauka frantsesak hainbesteko indarra surfaren inguruko hitzak sortzeko?
- 4 Zergatik baztertu dute *ahatearena* egin esapidea?
- 5 Zein iturritatik jasotzen dute informazioa hitzak sortzeko lanean?
- 6 Nolako emaitza dauka surf-eskolan euskaraz aritzeko egiten duten ahaleginak?
- 7 Zein da, surflarion ustez, euskara eta euskal kulturaz kontzientzia hartzeko bidea?
- 8 Ordenatu hurrengo ideiak testuaren arabera.
  - Euskaraz eta euskal kulturaz kontzientzia pizteko bideak.
  - Hiztegia euskaratzeko zailtasunak eta iturriak.
  - Nazioartean eragin handiena duten hizkuntzak.
  - Surfa Zarautzera heldu zeneko giroa.
  - Surf eskolaren ahaleginaren emaitza.
- 9 Pausoz pauso...
  - Atera testuaren gaia (gehienez 15 hitz).
  - Egin testuaren laburpena (10 lerro).
  - Azaldu izenburuaren eta artikuluaeren arteko harremana (gehienez 4 lerro).



## Ariketak

1 LEXIKOA. Irakurri testua berriz eta azpiko hitzen sinonimoak aurkituko dituzu.

- |                  |            |               |
|------------------|------------|---------------|
| 1. uhin          | 4. bidaide | 7. begiratu   |
| 2. urreratu      | 5. arrunt  | 8. atzerritar |
| 3. behinik behin | 6. ondoko  | 9. eutsi      |

2 ESAPIDEAK. Adierazi beste era batera ondorengo esaldia.

*Hitzetik hortzera dabil aisialdian euskara sartzeko kontua.*

- Jende guztiaren ahotik dator.
- Batzuen ahoetan dago.
- Guztien ahotan dabil.
- Ahotatik ahotara daramagu.

3 ZUZENTASUN GRAMATIKALA. Aukeratu egokienak perpausa osatzeko.

*Surfaren munduan, ... aparraren azpitik pasatzeari azpiratzea ...*

- |  |           |
|--|-----------|
| <input type="checkbox"/> ohol eta guzti  | darabilgu |
| <input type="checkbox"/> ohol eta guztiz | diogu     |
| <input type="checkbox"/> ohol eta guztia | dakusagu  |
| <input type="checkbox"/> ohol eta guzti  | deritzogu |

4 LEXIKOA. Erreparatu hurrengo hitzen idazkerari eta lotu definizioekin.

*ahur/haur - ari (izan)/hari - iritzi/iritzi*

- \_\_\_\_\_: Lihoz edo antzeko gai batez osatutako izpi luze, mehe eta malgua.
- \_\_\_\_\_: Gizaki gaztea, emakumezkoa zein gizonezkoa, nerabegarora heldu ez dena.
- \_\_\_\_\_: Zerbaitez edo norbaitez halako ustea izan; halakoa iruditu.
- \_\_\_\_\_: Eskuaren barneko aldea, eskumuturretik hatzetaraino hedatzen dena.
- \_\_\_\_\_: Toki baterantz abiatu ondoren, hara heldu.
- \_\_\_\_\_: Zerbaitetan jardun; zerbait egiten ibili, ekintza oraindik bukatu ez delarik.



5 BERRIDAZKETA. Moldatu testuko esaldi hauek, parentesi artean emandako forma erabiliz.

- Haritz eta Mikel 10-12 urterekin hasi ziren surfean Zarautzen. *(-e)la*
- Gaztelaniaren tokiaz galdetzeaz bat, ingelesak eta frantsesak duten eraginaz galdetu diegu. *(-t(z)ean)*
- Beti sortze lanean ibili beharrean, arraun-munduari ere begiratzen diote. *(ordez)*
- Paperean geratzen dira, ordea, erabiltzen ez badira. *(ezean)*
- Gero eta gehiago euskaraz eta ingelesez egiten dute, udan kanpotarrak baitatoz. *(-e)lako*
- Iaz ezagututako surfista alemaniarrek «egun on» esaten dionean ilusio handia egiten dio. *(ezagutu)*

6 ZUZENTASUN GRAMATIKALA. Zuzendu hurrengo esaldiak.

- a. Irakurri duzun artikulua Onintza Iruretagatik egina da.
- b. Euskara dela eta, zer espero dezakegu gazteengatik?
- c. Iazko surf-txapelketan ez nituen zure lagunik ikusi.
- d. Biharko hitzaldian Euskal Herriko surf-lari handietaz hitz egingo dute.

7 ESAPIDEAK. Aukeratu jarraipen egokia. *Euskarak ez dauka lan makala surf munduan, ...*

- ez ezik.
- alajaina!
- bai horixe!
- ezta pentsatu ere.

8 ZUZENTASUN GRAMATIKALA. Zuzendu gaizki dauden esaldiak.

- a. Surf-lari hauen esker euskara surf munduan sartzen ari da azken urteotan.
- b. Ez zuten elkarrenganako konfiantza galdu, luzaroan urrun egon arren.
- c. Surf-lariok sortutako hitzek ez dute gaztelaniatik zuzenean hartutakoak zertan izan behar.
- d. Oraingo egoerak ez dauka ezer ikusirik duela hamar urteko egoerarekin.

9 LEXIKOA. Esan zerrenda bakoitzean zein hitz dagoen tokiz kanpo eta azaldu zergatik.

- a. ohol, arraun, potin, marinela.
- b. apar, olatu, ilbehera, itsasaldi.
- c. uharte, itsaskor, itsasarte, itsasadar.
- d. eskola, hizkera, hiztegi, hitzontzi.